



Eusko Jaurlaritzaren Informatika Elkartea  
Sociedad Informática del Gobierno Vasco

## Kontrataziorako Barne Jarraibideak

Data: 2010eko abendua

Erreferentzia: ACP06

EJIE S.A.  
Mediterraneo, 14  
Tel. 945 01 73 00\*  
Faxa: 945 01 73 01  
01010 Vitoria-Gasteiz  
Posta-kutxatila / Apartado: 809  
01080 Vitoria-Gasteiz  
[www.ejie.es](http://www.ejie.es)

Dokumentu hau EJIE, S.A.rena da eta edukia isilpekoa da. Dokumentu hau ezin da erreproduzitu, ez osorik ez zati batean, eta ezta besteri erakutsi ere edo entregatu den xederako ez den beste ezertarako erabili, EJIE, S.A.k aurrez horretarako baimen idatzia eman ezean. Dokumentua kontratu bat betez emana izan bada, kontratu horretan berariaz baimendu denerako soilik erabili ahal izango da. EJIE, S.A. ezingo da dokumentua argitaratzean egin litezkeen akats edo hutsegiteen erantzuletzat jo.

## Edukia

	Kapitulua/atala	Orria
1	Agiriaren helburua	¡Error! Marcador no definido.
2	Hasteko aurrekontuak	¡Error! Marcador no definido.
3	Herri-administrazio ez diren botere esleizaitzeen kontratazioaren araubide juridikoa	¡Error! Marcador no definido.
4	Arauketa harmonizatuaren pean ez dauden kontratuak egiteko barne-jarraibideak	¡Error! Marcador no definido.
4.1	Alderdi orokorrak	¡Error! Marcador no definido.
4.2	Kontratazio-ereduak	¡Error! Marcador no definido.
4.2.1.	A kontratazio-eredua - Sinplifikatua	¡Error! Marcador no definido.
4.2.2.	B kontratazio-eredua - Mugatua.	¡Error! Marcador no definido.
4.2.3.	C.1 kontratazio-eredua - Irekia	¡Error! Marcador no definido.
4.3	Beste prozedura batzuk	¡Error! Marcador no definido.
4.3.1.	C2- Ireki negoziatu publizitadeduna	¡Error! Marcador no definido.
4.3.2.	C3 - Murriztua	¡Error! Marcador no definido.
4.3.3.	Elkarrizketa lehiakorra	¡Error! Marcador no definido.
4.4	Kontratazio-ereduen laburpen-eskema	¡Error! Marcador no definido.
I.	eranskina – Glosarioa	¡Error! Marcador no definido.

## 1 Agiriaren helburua

Agiri honen xedea da kontratazio-prozesuarekin lotutako barne-jarraibideak deskribatzea.

Jarraibide hauek EJI Eren Administrazio Kontseiluaren erabakiaren bitartez onartu ziren, eta onartu ziren egunetik hasiko diren kontratazio-espeditu guztiei aplikatuko zaizkie.

Jarraibide hauek nahitaez bete beharko ditu EJI Ek, bere barne-eremuan. Era berean, arautzen dituzten esleipeneko prozeduretan parte hartzeko interesa duten guztien eskura jarriko dira jarraibideok, eta EJI Eren kontratatzaile-profilean argitaratuko dira.

## 2 Hasteko aurrekontuak

EUSKO JAURLARITZAREN INFORMATIKA ELKARTEA - SOCIEDAD INFORMÁTICA DEL GOBIERNO VASCO, EJIE, S.A. sozietatea sektore publikoa deritzon horren barruan dago, eta nahiz eta ez den herri-administrazioa, baditu "botere esleitzailatzat" hartua izateko zenbait ezaugarri. Horrela bada, Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak (aurrerantzean SPKL) xedatutakoa aplikatu behar zaio, lege horren 3. artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legeak kontratu pribatutzat jotzen ditu EJIE, S.A. sozietateak egiten dituen kontratu guztiak, betiere lege horren 20.1 artikulua xedatutakoarekin bat etorritz, honela baitio hitzez hitz: "kontratu pribatutzat joko dira herri-administrazio ez diren sektore publikoko ente, organismo eta erakundeek egindako kontratu guztiak".

Horrek esan nahi du kontratu horien betetzea kontratazioari buruzko arau zibilen pean egongo dela, eta, kontratu horiek prestatu eta esleitzeari dagokionez, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen pean.

Era berean, Sektore Publikoko Kontratuen Legeak bereizi egiten ditu, alde batetik, herri-administrazioek egiten dituzten kontratuak eta herri-administrazioaren izaera ez duten gainerako botere esleitzailak egiten dituzten kontratuak, eta, bestetik, "aruketa harmonizatuaren pean ez dauden kontratuak", kasu batean edo bestean araubide juridiko bat edo bestea aplikatze aldera.

"Aruketa harmonizatuaren peko kontratuak" orokorki (13. artikulua), edo kontratu-mota bakoitzarentzat xeheki (14.etik 17. artikulura) definitzen ditu legeak.

Legearen 13. artikulua arabera, *"aruketa harmonizatuaren peko kontratuak dira sektore publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzakontratuak, beti, bai eta obra-kontratuak, herri-lanen emakida kontratuak, hornidura-kontratuak eta II. eranskineko 1. kategoriatik 16.era arteko kategorietan sartzen diren zerbitzuen kontratuak ere, baldin eta horien balio zenbatetsia, 76. artikuluan ezarritako arauen arabera kalkulatua, ondorengo artikuluetan aipatzen diren kopuruetakoa edo handiagoa dela jotzen bada, eta, betiere, erakunde kontratatzailea botere esleitzaila bada. Aruketa harmonizatuaren peko kontratutzat joko dira 17. artikulua horrek aipatzen dituen erakundeen diru-laguntzarekin egiten diren kontratuak.*

Arauketa harmonizatuaren peko kontratuak dira, besteak beste:

- Sektore publikoaren eta sektore pribatuaren arteko lankidetzakontratuak.
- Balio zenbatetsia 4.845.000,00 euro edo gehiagokoa duten obra-kontratuak eta herri-lanen emakidakontratuak.  
Obra bat gauzatzeak kontratuak lote bereizitan eta aldi berean esleitu beharra ekar dezakeenean, eta loteen balio pilatua zenbateko horretakoa edo handiagoa denean, arauketa harmonizatuaren peko arauak aplikatuko zaizkio lote bakoitzaren esleipenari.  
Nolanahi ere, kontratazio-organoek salbuetsi egin ditzakete arau horietatik zenbateko balioetsia milioi bat eurotik beherakoa duten loteak, betiere salbuetsitako loteen zenbateko pilatuak ez badu gainditzen lote guztiek batera duten balio pilatuaren % 20.
- Balio zenbatetsia 193.000,00 eurokoa edo handiagoa duten hornidura-kontratuak.  
Hornidura homogeneous eskuratzean kontratuak aldi berean eta lote bereizietan esleitzeko aukera dagoenean, lote bakoitzaren esleipenari aplikatuko zaizkio arauketa harmonizatuaren arauak. Nolanahi ere, kontratazio-organoek salbuetsi egin ditzakete arau horietatik zenbateko balioetsia 80.000 eurotik beherakoa duten loteak, betiere salbuetsitako loteen zenbateko pilatuak ez badu gainditzen lote guztien balio pilagarriaren % 20.
- II. eranskineko 1. kategoriatik 16.era artekoetan sartzen diren zerbitzu-kontratuak, balio zenbatetsia 193.000,00 eurokoa edo handiagoa dutenak.  
Zerbitzu homogeneous kontratatzeak ekar dezakeenean lote bereizien kontratuak aldi berean esleitzea, eta zerbitzuen erosketak horrek dituen loteen balio pilatua zenbateko horretakoa edo handiagoa denean, arauketa harmonizatuaren peko arauak aplikatuko zaizkio lote bakoitzaren esleipenari. Nolanahi ere, kontratazio-organoek salbuetsi egin ditzakete arau horietatik zenbateko balioetsia 80.000 eurotik beherakoa duten loteak, betiere salbuetsitako loteen zenbateko pilatuak ez badu gainditzen lote guztiek batera duten balio pilatuaren % 20.
- Esleipeneko ahalmena duten erakundeek zuzenean eta zenbatekoaren % 50 baino gehiagoko diru-kopurua emanaz lagundutako obra- eta zerbitzu-kontratuak, betiere kontratuok kategoriatuak badira:
  - a) Xedetzat Europako Erkidegoetako Ekonomia Jardueren Izendegi Orokorreko (EJIO) F sailerako, 45 atalerako, 45.2 taldeko ingeniariak zibilak jarduerak dituzten obra-kontratuak, edo erietxeak, kiroldegia, jolaserako edo aisiarako guneak, eskolak edo unibertsitateak eta administrazio-erabilerako eraikinak eraikitzea dutenak, betiere balio zenbatetsia 4.845.000,00 eurokoa edo handiagoa badute.
  - b) Paragrafo honetako a) letran definitutako obra-kontratu batekin lotutako zerbitzu-kontratuak, betiere balio zenbatetsia 193.000,00 eurokoa edo handiagoa badute.

Beste alde batetik, legeak **“arauketa harmonizatuaren pean ez dauden kontratutzat”** jotzen ditu erakunde kontratugileagatik, kontratu-motagatik edo zenbatekoagatik europar arauketa pean ez daudenak, bai eta beste kontratu berezi batzuk ere, edozein dela ere haien balio zenbatetsia, honako hauek, zehazki:

- Xedetzat irradi-difusioko erakundeek irradi-difusiorako programak erostea, garatzea eta ekoiztea (banaka edo beste norbaitekin) duten kontratuak, bai eta irradi-difusiorako denborari dagozkionak ere.
- Kontratazio-organoak osoki ordaindutako ikerketa- eta garapen-kontratuak, betiere kontratu horien emaitzak ez badira erreserbatzen kontratazio-organoak berea duen jardueran eksklusiboki erabiltzeko.
- Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren 296. artikulua zehazten duen eremuan sartzen direnak.
- Isilpekotzat edo ezkutukotzat jotakoak, edo indarrean dagoen legediaren arabera segurtasun-neurri bereziaz babestuta bete beharrekoak, edo Estatuaren segurtasunerako funtsezko interesak babestu beharrendatik egin beharrekoak.
- Xede nagusia kontratazio-organoei telekomunikazio-sare publikoak eskaintzeko edo ustiatzeko aukera ematea dutenak, edo gizartea telekomunikazio-zerbitzu batez edo gehiagoz hornitzea.

### 3 Herri-administrazio ez diren botere esleitzzaileen kontratazioaren araubide juridikoa

A.- Arauketa harmonizatuaren peko kontratuak, kontratu harmonizatuak (Legearen 174. artikulua). III. liburuko I. tituluko I. kapituluan jasotako xedapenek arautuko dituzte, egokitzapen batzuekin.

B.- Arauketa harmonizatuaren pean ez dauden kontratuak (Legearen 175. artikulua).

- Esleipena publizitate, lehia, gardentasun, fidagarritasun, berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioen pean egongo da beti.
- Nahitaez betetzeko jarraibide batzuk onartu beharko dira, eta, horietan, printzipio horiek bermatzeko kontratazio-prozedurak arautuko dira.
- Kontratua eskaintza ekonomikorik onena aurkezten duenari esleitu beharko zaio.
- Jarraibideak esleipeneko prozeduretan parte hartu nahi duten interesdun guztiei eskaini beharko zaizkie, eta kontratatzaile-profilean argitaratu beharko dira.
- Nolanahi ere, publizitate-printzipioa bermatzea aldera, 50.000 eurotik gorako kontratuen kasuan, kontratatzaile-profilean argitaratu beharko da haiei buruzko informazioa.

## 4 Arauketa harmonizatuaren pean ez dauden kontratuak egiteko barne-jarraibideak

### 4.1 Alderdi orokorrak

1. Kontrataziorako barne-jarraibide hauek nahitaez betetzekoak dira, eta beren **xedea** da Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 175. artikuluan ezarritako eskakizunak betetzea. Jarraibideok arauketa harmonizatuaren pean ez dauden kontratuak esleitzeari buruzkoak dira, eta publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioak bermatzen dituzte.

Horretarako, EJIE, S.A. sozietateak tratamendu berdina emango die lizitzaileei eta hautagaiei, diskriminaziorik gabekoa, eta gardentasun-printzipioaren arabera jardungo du. Ez da zabalduko enpresaburuek konfidentzialtat jotako informaziorik. Nolanahi ere, hautagaiei eta lizitzaileei eman egingo zaie Legeak aginduta eman beharreko informazioa.

EJIE S.A.ren kontratazio-prozedurak bateratzeko, kontrataziorako barne-jarraibide hauetan arauketa harmonizatuaren peko kontratuen kontratazio-prozedurak ere biltzen dira eta prozedura horiek aplikatu beharko dira Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen aurkakorik esaten ez badute, kasu horretan, lege hori gailenduko baita.

2. Kontrataziorako barne-jarraibide hauen edukia EJIE, S.A. sozietatearen **kontratatzaile-profilean argitaratuko da**, honako helbide honetan: [www.ejje.net](http://www.ejje.net). Etengabe eguneratuko da. Kontrataziorako barne-jarraibide hauek EJIE, S.A. sozietatearen Administrazio Kontseiluak onartzen dituen egunetik aplikatuko dira.

3. Jarraibide hauen ondorioetarako, **honako kontratu-eredu** hauek definitzen dira:

#### **Obra-kontratuak**

Obra-kontratuak dira xedetzat obra bat egitea edo Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen I. eranskinean aipatzen diren lanetako bat gauzatzea dutenak, edo EJIEk zehaztutako beharrianei erantzuten dien obra bat gauzatzea edozein bitartekoren bitartez. Prestazio horietaz gain, kontratuak jaso ahal izango du, hala egokituz gero, dagokion proiektua idaztea.

“Obra” da eraikuntza-lan batzuen edo ingeniari-tza zibileko lan batzuen emaitza, ondasun higiezin batean eginkizun ekonomiko edo tekniko bat betetzeko xedea dutenak.

#### **Hornidura-kontratuak**

Hornidura-kontratuak dira xedetzat produktuak edo ondasun higigarriak eskuratzea dutenak, edo haiek finantza-errentamenduaren edo ohiko errentamenduaren bitartez errentan hartzea dutenak, erosteko aukerarekin edo aukerarik gabe.

Nolanahi ere, hornidura-kontratutzat joko dira:

- Enpresaburuak ondasun anitz jarraian eta unitateko prezioa entregatzeko betebeharra hartzea dakarten kontratuak, betiere kontratua egiteko garaian kopuru osoa zehaztasunez mugatzen ez bada, ondasunak EJIE, S.A. sozietatearen beharriaren arabera entregatu behar direlako.
- Telekomunikaziorako edo informazioa tratatzeko ekipoak eta sistemak edota horien gailuak eta programak erosi eta errentan hartzeko xedea dutenak, bai eta horien gaineko erabilera-eskubideak lagatzekoak ere.
- Fabrikaziokoak, hornitzaileak entregatu behar dituen gauzak EJIE, S.A. sozietateak aldeztu aurretik ezarritako ezaugarri berezi batzuen arabera entregatu beharra dakartenak, nahiz eta EJIEk beharrezkoak diren material guztiak edo haien zati bat emateko betebeharra hartu bere gain.

#### **Zerbitzu-kontratuak**

Zerbitzu-kontratuak dira jarduera bat egitea edo beste emaitza bat -obra bat edo hornidura bat ez bezalako- Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30 30/2007 Legearen II. eranskinean zehaztutako kategorien arabera gauzatu beharra dakartenak.

Halaber, zerbitzu-kontratutzat joko dira honako kontratu hauek:

- Neurri-egindako ordenagailu-programak eskuratzekoak.
- Informatika-aplikazioen analisia, garapena, ezarpena eta zuzenketa- eta bilakaera-mantenua egitea dakartenak.
- Euskarri teknikoa.
- Kontsultoretza.

4. **Jarraibide hauen interpretazioa.** Jarraibide hauen ondorioetarako, hasierako hizkia larriz duten terminoek jarraibideetan bertan ezarritako esanahia izango dute, eta jarraibideetan definituta ez daudenek, SPKLAN ezarritakoa.

Halaber, agiri honen 1. eranskinean terminoen glosategi bat dago, argitzea behar duten terminoentzat definizio bat ematen duena.

Baldin eta jarraibide hauen ondorioz SKPLko arau bat egokiturik aplikatu behar bada, edo ezin bada osorik edo hein batean aplikatu, SPKLko beste artikuluko batzuek, jarraibide hauen arabera aplikatzekoak direnek, arau horretara bertara egiten dituzten igorpenak egokitze edo indargabetze horiekin beroriekin egiten direla joko da.

Kontratuen balio zenbatetsia SKPLko 76. artikuluan aurreikusitako arauen arabera kalkulatu da, eta balio horretan ez da sartuko Balio Erantsiaren gaineko Zerga.

5. **Jarraibide hauek arautzen duten kontratazioaren printzipio orokorrak.** Jarraibide hauek aplikatu behar zaizkien kontratuak SKPLko 1. artikuluan jasotako printzipioen pean izango dira, eta kontratu horien esleipena publizitate, lehia, gardentasun, konfidentzialtasun, berdintasun eta diskriminazio-ezaren printzipioen pean egingo da, SKPLko 175. artikulua arabera.

Aurreko paragrafoan aipatutako printzipioak egiaz betetzen direla bermatze aldera, EJIE, S.A. sozietateak jarraibide hauen arabera izapidetuko dituen kontratazio-prozeduretan, kontratazio-organoen jardunak printzipio horiek betetzea izango du xede, beti.

Jarraibide hauetako hurrengo idatz-zati hauek betetzen direnean joko dira betetzat printzipio hauek. Jarraibide horiek aplikatzeko eta interpretatzeko, honako jardun-irizpide hauei jarraituko zaie:

- a) Publizitate-printzipioa betetzen dela joko da irati-difusiorako bitarteko edo hedabide egokiak eta behar bezain eskuragarriak baliatzen direnean lehian parte har dezaketen guztien onerako. Bitarteko horien bidez, EJIE, S.A. sozietatearen kontratuen informazioa eman beharko da, eta merkatuaren atea lehia irekiari irekitzeko aukera eman behar dute.
- b) Gardentasun-printzipioa betetzen dela joko da baldin eta dagokion kontratua esleitu aurretik informazio egokia zabaltzen edo hedatzen bada, hau da, lizitazioan parte har dezakeen orok lizitazioan parte hartzeko interesa adierazi ahal izateko aukera ematen duen informazioa zabaltzen edo hedatzen bada. Era berean, printzipio honek dakarren betebeharra da parte hartzaile guztiek alde aurretik ezagutu ahal izatea kontratuari aplikatu ahal zaizkion arauak, eta, orobat, arau horiek erakunde guztiei berdin aplikatuko zaizkielako ziurtasuna izatea.
- c) Lizitazioan parte har dezaketenek parte hartu ahal izatea eta agiri horiek eskura izatea errazteko beharrezkoak diren neurriak onartuko dira jarraibide hauetan aurreikusitakoaren arabera, kontratua eskaintza ekonomikorik onenari esleitzearren.
- d) Konfidentzialtasun-printzipioa errespetatu egingo da, eta, horretarako, enpresaburuek konfidentzialtat izendatu duten informazioa ez zabaltzeko betebeharra hartu beharko du EJIE, S.A. sozietateak bere gain, baldin eta betebeharrak horretarako kausa justifikatuak baldin badaude. Bereziki, eskaintzetan isilpean gorde beharreko datu teknikoak edo komertzialei edo isilpean gorde beharreko beste alderdi batzuei dagokie betebeharrak hori. Era berean, printzipio horren aplikazioak eskatuko du kontratuaren betetzea dela-eta eskura dezaketen informazioa isilean gorde beharra, baldin eta kontratuaren baldintzen agirietan isilean gorde beharrezkotzat jo bazen, edo, beraren izaerarengatik, isilean gorde beharrezkotzat jo behar bada.
- e) Berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioa bermatze aldera, prozeduretan inpartzialtasuna eta ekitate bermatzeko behar diren neurriak onartuko dira. Neurri horien artean sartzen dira, gutxienez,

honako hauek:

- i) Kontratuen xedea diskriminaziorik ez eragiteko moduan deskribatuko da beti, fabrikazio edo jatorri jakin bat aipatu gabe, edo produktu berezirik edo marka, patente, eredu, jatorri edo produkzio jakinik aipatu gabe, betiere era horretako erreferentzia bat behar bezala justifikatzen ez bada eta “edo baliokidea” aipamenarekin batera badao.
  - ii) Ez da ezarriko lehiaren parte har dezaketen Europar Batasuneko beste estatu kide batzuk zuzenean edo zeharka diskriminatzea eragin dezakeen baldintzarik.
  - iii) Baldin eta hautagaiei eskatzen bazaie tituluak, ziurtagiriak edo beste era bateko dokumentazio justifikagarria aurkez dezaten, batak bestearen diplomak, ziurtagiriak eta beste titulu batzuk onartzeko printzipioaren arabera onartu beharko dira beste estatu kide batzuetatik datozen agiriak.
  - iv) Interesa agertzeko edo eskaintza bat aurkezteko emandako epeak egokitu egingo dira beste estatu kide batzuetako enpresek ebaluazio egokia egiteko aukera izan dezaten eta eskaintza bat agertu ahal izan dezaten.
  - v) Esleipeneko prozeduran hornitzaile batek baino gehiagok parte hartzen badu, EJIE, S.A. sozietateak bermatu beharko du guztiek dutela, baldintza berberetan, kontratuari buruzko informazio bera.
6. Oro har, kontratazio-eskaera oro dokumentaturik egon beharko da, eta dagokion arloko zuzendariaren eta kontratazio-zerbitzuaren arduradunaren oniritzia izan beharko du, non eta kontratazioa ez den egiten zuzendariaren ekimenez, zeren eta, kasu horretan, ez baita beharrezkoa izango kontratazio-zerbitzuaren arduradunaren oniritzia, eta aski izango baita hari jakinarazpena egitea.
7. 50.000 eurotik gorako kontratuetan, **administrazio-klausula berezien agiri** bat egongo da, eta klausula horien bidez ezarriko dira kontratuaren oinarritzko ezaugarriak, aldaerak onartzeko araubidea, eskaintzak jasotzeko modalitateak, kontratuak esleitzeko irizpideak eta eratu beharreko bermeak.

Agiri hori kontratuaren ezinbesteko zatia da; dena dela, kontratu bakoitzaren zehaztapen teknikoak direla-eta, horrezaz gain, proiektu tekniko bat edo **baldintza teknikoan agiri edo zehaztapen teknikoan agiri** bat ere egon beharko da.

Administrazio-klausula berezien agiriak, besteak beste, lehia askearen, gardentasunaren, berdintasunaren eta diskriminazio-ezaren printzipioak bermatuko dituen irizpideak eduki beharko ditu, eta kontratua proposamen ekonomiko onenari esleitzeko zaiola bermatuko dutenak. Hori gorabehera, kontratu-motaren eta esleipeneko prozeduraren arabera, gerta liteke irizpide horiek baldintza teknikoan agirian agertzea.

Proposamenak balioesteko eta eskaintza ekonomikorik onena zein den zehazteko, kontratuaren xedeari zuzenean lotutako irizpideei jarraituko zaie; esate baterako, kalitatea, prezioa, obra erabiltzeari edo zerbitzua emateari lotutako ordainsariak berrikusteko formula erabilgarria, prestazioa betetzeko edo bidaltzeko epea, erabiltzeko kostua, ingurumeneko ezaugarriak edo beharrezko erantzuten dieten gizarte-eskakizunen asebetetzeari lotutako ezaugarriak, kontratuaren zehaztapenetan zehaztuta badaude (eta biztanleriako maila bereziki kaltetuei dagozkienak, kontratatu beharreko prestazioen erabiltzaile edo onuradunak kategoria horietako kide direnean), errentagarritasuna, balio teknikoa, ezaugarri estetikoak edo funtzionalak, ordezko piezen erabilgarritasuna eta kostua, mantentze-lanak, laguntza teknikoa, saldu osteko zerbitzua edo beste antzeko zerbitzu batzuk.

Esleitzeko irizpide bakar bat erabiltzen denean, irizpide hori, nahitaez, preziorik baxuena izango da. Irizpide bat baino gehiago kontuan hartzen denean, irizpide horietako bakoitzari egozten zaion haztapen erlatiboa zehaztu beharko da, eta hori zabalera egokiko balio-tarte bat ezarriz adieraz daiteke.

Esleipen-prozedura hainbat fasetan antolatzen bada, halaber, irizpide bakoitza zein fasetan aplikatuko den adieraziko da, bai eta lizitatzaileri hautaketa-prozesuan aurrera egin ahal izateko eskatuko zaion gutxieneko puntuazio-maila zein den ere. Aukeratutako irizpideak ponderatzea posible izango ez balitz, irizpideok garrantziaren arabera zerrendatuko dira, garrantzi handienekotik txikienera.

Agiri hori EJIEko Kontratazio Zerbitzuak prestatuko du, kasuan kasuko arloak horretarako beharrezko den dokumentazio guztia bidali ondoren, eta agiri hori kontratazio-organoak onartuko du. Organo horrek, bestalde, baimendu behar duen kontratazio bakoitzerako erabili beharreko agiri-ereduak onartu ahal izango ditu.

Agiriak onartzea, betiere, zuzendari nagusiari egokituko zaio, are kontratazio-organoak beste batzuk direnean, eta kasu horietan eskuordetza bidez jardungo du, eta hori gauzatzat ulertuko da kontratazioko barne-jarraibide horiek onartzen direnean.

8. Kontratazioa izapidetzen den bitartean sortzen diren agiri guztiek osatzen dute **kontratazio-espeditzea**. Espediente hori, gainera, behar bezala artxibatuko du kontratazio-zerbitzuak.
9. **Kontratazio-organoak**, kasu bakoitzean, EJIEren estatutuetan eta gainerako xedapen gehigarrietan aurreikusitakoaren arabera zehaztuko dira, alde batera utzita beste organo batzuei egiletsi dakizkiekeen eskuordetza eta ahalordetza baliodunak.
10. **Kontratuen iraupena** ere prestazioen izaera, zerbitzuon finantzaketaren ezaugarriak eta prestazioon gauzatzea aldi behin lehiatik pasarazteko beharrezkoa kontuan hartuta ezarriko da. Kontratuan, luzapen bat edo gehiago aurreikusi ahal izango dira, betiere, luzapenok irauten duten bitartean kontratuaren ezaugarriak aldatzen ez badira, eta kontratuon esleipenerako lehia kontratuaren gehienezko iraupena kontuan hartuta egin bada, luzapen-aldiak barne. Agiriak bestelakorik ezarri ezean, zerbitzu-kontratuen luzapenetarako, urriaren 30eko 30/2007 legearen 279. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.
11. Agiriak lizitazio bakoitzerako araubide aplikagarri ezberdin bat ezartzen dutenean izan ezik, **kontratuen aldaketan** baldintzak eta ondorioak urriaren 30eko 30/2007 legearen 202. artikuluan (artikulu hori 217., 272. eta 282. artikuluekin lotuta) ezarritakoak izango dira.

Kontratuen aldaketa horiek baimentzea, esleitutako kontratuari dagokion kontratazio-organo berari egokituko zaio. Dena dela, esleitutako kontratuari eragiten dieten aldaketa guztiak onartu ahal izango ditu zuzendari nagusiak.

Ez dira hartuko kontratuaren aldaketatzat kontratuaren xedearen zabaltzeak, baldin eta ezin badira hasierako proiektuan sartu kontratuaren zuzenketa baten bidez, edo erabilpen edo aprobetxamendu beregaina izateko moduko prestazioa egin beharra badakarte, edo kontratua prestatzeko dokumentazioan jasotzen ez diren

beste helburu berri batzuk gauzatzeko direnak. Kontratuaren zabaltze horiek bereiz kontratatu beharko dira, eta, behar izanez gero, prestazio osagarriak kontratatze aurreikusitako araudia aplikatu ahal izango da, urriaren 30eko 30/2007 Legearen 155.b) eta 158.b) artikuluetan aurreikusitako gorabeherak agertzen badira.

12. Kontratazio guztietan, **esleipen-proposamen** bat egon beharko da, eskaintzak balioesteko txosten teknikoaren ondoren. Txosten hori langile eskudunek egingo dute, eta eragindako arloko arduradunak balidatuko.
13. **Kontratuak**, oro har, zuzendari nagusiak **izenpetuko ditu**, kontratazio-organoak ahaldundu ondoren, organo hori Administrazio Kontseilua denean.
14. Agirietan aurreikusten diren behin-behineko eta behin betiko **bermeak** eman beharko dira, eta berme horiek legezko kasuei eta agiri bakoitzean aurreikusitakoei erantzungo diete.

Agiriak bestelakorik adierazi ezean, kontratazioen berme-epea urtebetekoa izango da, produktua edo zerbitzua eragozpenik gabe jasotzen denetik.

15. Oro har, ez da egongo **prezioen berrikuspenik**, agiri jakin batek halakorik aurreikusi ezean.
16. Salbu eta agiriak beste zerbait adierazten duen, 60 eguneko epemuga duten efektuekin egingo zaizkie **hornitzaileei ordainketa** guztiak.
17. Lizitazio bakoitzeko agiriak bestelakorik adierazi ezean, kontratuak **suntsiarazteko arrazoiak** izango dira urriaren 30eko 30/2007 legearen 206, 208, 220, 275 eta 284. artikuluetan aipatutakoak.
18. **EJIE, S.A.ren kontratatzaile-profila** [www.ejie.net](http://www.ejie.net) web-orriko "kontratatzaile profila" atala bera da. Atal horretan, hain zuzen ere, publizitatea emango zaie 50.000 eurotik gorako lizitazio eta esleipenei, betiere esleipendunaren identitatea eta esleipenaren zenbatekoa adierazita.
19. **Presazko kasuetan**, izapidea bestelakoa izango da: eskaintzak aurkezteko epeak edo oro har ezarritako publizitate-eskakizunak murriztu egingo dira, eta kontratua betearaztea ere erabaki ahal izango da, aurretik kontratua formalizatu ez arren. Presazko kasuak eta horien ondorioak kasu bakoitzean balioetsiko ditu kontratazio-organoak.
20. **Kontratua esleitzea eta esleipena jakinaraztea**: Kontratazio-organoak jasotako eskaintzak balorazio handienekotik txikienera sailkatuko ditu, dagokion agirian aurreikusitako irizpideen arabera, eta esleipen-proposamena errespetatuta.

Kontratazio-organoak eskatuko dio eskaintzarik onena aurkeztu duen lizitatuari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak betetzen dituela, kontratua burutzeko erabiliko dituen bitartekoak badituela eta, hala badagokio, eskatzen den behin betiko bermea eratu duela justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko, edo kontratazio-organoari baimena emateko zuzenean eskura dezan. Errekerimendu hori

adierazitako epean beteko ez balitz, lizitatuzaileak bere eskaintza bertan behera uzten duela ulertuko da, eta eskaintzen sailkapen-ordenaren arabera hurrengoa den lizitatuzaileari eskatuko zaio dokumentazio bera.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta 5 egun balioduneko epean esleitu beharko du kontratua.

Esleipena hautagai edo lizitatuzaileei jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatuzaile-profilean argitaratuko da. Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena.

- 21. Kontratazio arloko errekurtsio berezia:** Sektore Publikoko Kontratuen urriaren 30eko 30/2007 Legearen 310. artikulua 2. idatz-zatian aipatutako erabakiak, 310. artikulua 1. idatz-zatian aurreikusitako mota eta kontratuei dagokienez.

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 311. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio arloko errekurtsio berezia ebazteko eskumena Euskal Autonomia Erkidegoan horretarako eraturako organo independenteak izango du.

Kontratazio arloko errekurtsio berezia abiarazteko, aurkaratutako egintzaren jakinarazpena igorri eta biharamunetik kontatzen hasita hamabost egun balioduneko epean, idatzia aurkeztu beharko da, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 314. artikulua bigarren lerrokadan aurreikusitako berezitasunekin.

## **22. Kasu bereziak:**

- Esparru-akordio bidezko kontratazio-prozedura erabiltzea (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 180.etik 182.era arteko artikulua) Ondoren aipatuko ditugun kontratazioak kontratista jakin batzuk "homologatuko" dituen esparru-akordio baten bitartez egin ahal izango ditu EJIE, S.A. sozietateak. Behin kontratatuzaileak hautatuz gero, kasu bakoitzean zenbatekoaren arabera dagokion kontratazio-organoak eskaintzak eskatuko dizkie gutxienez "homologatuetatik" hiruri, baldin eta baldintza ekonomiko guztiak eta epeak esparru-akordioan finkaturik ez badaude, izan ere arauketa harmonizatuaren pean ez dauden kontratuak baitira.
- Prozedura horren bidez kontratatu beharreko zerbitzuak honako hauek izango dira: hornitzaileei alde aurretik kaudimen jakin bat eskatzea dakarten zerbitzuak, eta, beraz, C.3 kontratazio-eredu murriztua darabiltenak.

## 4.2 Kontratazio-ereduak

Honako jarraibide hauek aplikatzeko eta kontratu bakoitzaren esleipenari aplikagarri zaizkion prozedura eta eskakizunak ezartzeko, honako kontratazio-eredu hauek bereizten dira:

- A kontratazio-eredua - Sinplifikatua. Eredu honi atxikita geratzen dira 100.000,00 euroko edo kopuru horretatik beherako balio zenbatetsia duten kontratuak, kontratu-obrak direnean izan ezik, kasu horretan balio zenbatetsia 1.000.000,00 eurokoa edo gutxiagokoa izango baita.
  
- B kontratazio-eredua - Mugatua. Eredu honi atxikita geratzen dira 100.000,01 euroren eta honako kopuru hauen arteko balio zenbatetsia duten kontratuak (ez dira hor sartzen obra-kontratuak, gutxieneko balio zenbatetsia 1.000.000,01 eurokoa badute):
  - 4.844.999,99 €, obra-kontratuak badira.
  - 192.999,99 €, gainerako kontratu-motetan.
  
- C.1 kontratazio-eredua - Irekia. Eredu honi atxikita geratzen dira balio zenbatetsi hau duten kontratuak:
  - 4.845.000,00 eurokoa edo kopuru horretatik gorakoa, obra-kontratuak badira.
  - 193.000,00 eurotik gorakoa, gainerako kontratu-motetan.

#### 4.2.1. A kontratazio-eredua - Sinplifikatua

Eredu honen pean egingo dira balio zenbatetsia 100.000 eurokoa edo hortik beherakoa duten kontratuak, edozein dela ere kontratu-mota.

Ondoren, prozesuan zehar egin beharreko jarduerak deskribatzen dira:

##### 1 Kontratatze beharra

Eskatzaileak kontratuaren beharrizana prestatuko du, eta arloko arduradunak edo dagokion arduradun nagusiak eman behar du horretarako baimena.

Beharrizanaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko arduradunak aplikatuko den kontratazio-eredua hautatuko du (edo ezetsi, hala balegokio), eta zuzendaritza-batzordearen gain utzi ahal izango du onartzeke dauden beharrizanei buruzko erabakia.

Eskaera egiteko arduraduna izendatuko da. Eskatzailea bera edo kontratazio-zerbitzuaren arduraduna izan daiteke arduradun hori.

##### 2 Kontratazioa eta esleipena

Eskaera egiteko ardura duenak, honako hauek egin beharko ditu:

- Kontratuaren zenbatekoa 50.000 eurokoa edo txikiagoa bada:
    - √ Eskaintza bat eskatu beharko dio ohiko hornitzaileari, edo beste bati, ohiko hornitzailearik ez balego. Eskaintza bat baino gehiago eskatzea aukerakoa da. Hala eginez gero, aplikatuko diren esleipeneko irizpideen berri eman beharko zaie hornitzaileei.
    - √ Ez da beharrezkoa argitaratzea.
  - Kontratuaren zenbatekoa 50.000,01 eta 100.000 euro artekoa den kasuetan:
    - √ Oinarri Teknikoen Agiria eta Administrazio Klausulen Agiria egingo dira.
    - √ Hornitzaile izan daitezkeenek egindako eskaera [www.ejje.net](http://www.ejje.net) web-orriaren “kontratatzaile-profila” atalean jarri behar da, 5 egun lehenago.
    - √ Horren ondoren, 3 hornitzailegai aukeratuko dira, gutxienez, eta negoziazio-prozesurako eskaintzak egiteko eskatuko zaie. 10 egun izango dituzte eskaintzak aurkezteko.
  - Egin diren eskaintzak jaso eta eskatzaileari esleipeneko proposamena egiteko eskatuko zaio; horren barruan, egin diren eskaintzei buruzko balioespen teknikoa egitea sartzen da, eta balioespen hori arloko arduradunak onetsita egon beharko da. Esleipen-proposamena jaso eta balidatzea; eskaintza ekonomikorik onena izango da proposatuko dena.
  - Eskaintza ekonomikorik onena egin duen lizitatzaileri errekerimendua egitea hamar eguneko epean zergaren eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak betetzen dituela egiaztatze dokumentazioa aurkez dezan, bai eta, kontratua hasi aurretik, eskatzen zaion gainerako dokumentazioa ere.
  - Dokumentazio guztia jaso ondoren, kontratazio-zerbitzuaren arduradunari ematea.
- Eskatzailearen arloko arduradunak kontratazio-eskaera onartu edo baztertu egingo du.

##### 3 Eskaeraren kudeaketa

Zuzendari nagusiak eskaera edo kontratua onartzeko baimena emango du, izenpetzearen bidez.

Kontratazio-zerbitzuaren arduradunak eskaera eta beharrezko informazioa esleipena lortu duen hornitzaileari bidaliko dizkio. Jendaurrean jarri behar izan diren kontratuen kasuan, behin-betiko esleipenaren berri EJI Eren web-orrian eman beharko da.

Kontratazio-zerbitzuaren arduradunak kontratatu den produktu edo zerbitzua nola egiaztatuko den zehazten du eskatzailearekin batera:

- Zerbitzua ematean egindako jarraipenaren bidez.
- Jasotzerakoan, egiaztatzearen bidez.

#### 4 Eskaera egiaztatzea

Eskatzaileak eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatzen du. Egiaztatzea produktu edo zerbitzua jasotzeko unean egiten bada, horren emaitza eskaera ixteko unean dokumentatuko da. Egiaztatzea zerbitzua ematen den bitartean egiten bada, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den artean burutuko da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitatearen eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

#### 4.2.2. B kontratazio-eredua - Mugatua.

Eredu honen pean geratzen dira 100.000,01 euroren eta honako kopuru hauen artean dagoen balio zenbatetsia duten kontratuak:

- 4.844.999,99 €, obra-kontratuak badira.
- 192.999,99 €, gainerako kontratu-motetan.

Ondoren, prozesuan zehar egin beharreko jarduerak deskribatzen dira:

#### 1 Kontratatzekeo beharra

Eskatzaileak kontratuaren beharrezina prestatuko du, eta arloko arduradunak edo dagokion arduradun nagusiak eman behar du horretarako baimena.

Beharrezanaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko arduradunak aplikatuko den kontratazio-eredua hautatuko du (edo ezetsi, hala balegokio), eta zuzendaritza-batzordearen gain utzi ahal izango du onartzeke dauden beharrezanez buruzko erabakia.

Kontratazio-zerbitzuko arduraduna izango da eskaeraren arduraduna.

#### 2 Kontratazioa eta esleipena

Eskaera egiteko ardura duenak, honako hauek egin beharko ditu:

- Oinarri teknikoen agiria osatu, esleipenerako irizpideekin.
- Administrazio-klausulen agiri bat sartu.
- [www.ejje.net](http://www.ejje.net) web-orrian, "kontratatzaile-profila" atalean, argitaratu, eskaintzak jasotzeko azken eguna baino 15 egun lehenago (premiatzko kontratazioa bada, epea laburtzeko aukera izango da, baina erdira gehienez).
- Egin diren eskaintzak jaso eta eskatzaileari esleipeneko proposamena egiteko eskatuko zaio; horren barruan, egin diren eskaintzei buruzko balioespen teknikoa egitea sartzen da, eta balioespen hori arloko arduradunak onetsita egon beharko da. Esleipen-proposamena jaso eta balidatzea; eskaintza ekonomikorik onena izango da proposatuko dena.
- Eskaintza ekonomikorik onena egin duen lizitatzaileri errekerimendua egitea hamar eguneko epean zergaren eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak betetzen dituela egiaztatzekeo dokumentazioa aurkez dezan, bai eta, kontratua hasi aurretik, eskatzen zaion gainerako dokumentazioa ere.

- Dokumentazio guztia jaso ondoren, kontratazio-zerbitzuaren arduradunari ematea.
- Dokumentu guztiak kontratazio-zerbitzuaren arduradunari eskura ematea.

Eskatzailearen arloko arduradunak kontratazio-eskaera onartu edo baztertu egingo du.

### **3 Eskaeraren kudeaketa**

Zuzendari nagusiak eskaera edo kontratua onartzeko baimena emango du, izenpetzearen bidez.

Esleipena lizitatzailer eta hautagaiei jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita hamabost egun balioduneko epean formalizatuko da eskaera/kontratua.

Kontratazio-zerbitzuaren arduradunak eskaera eta beharrezko informazioa esleipena lortu duen hornitzaileari bidaliko dizkio. Behin-betiko esleipena EJIEn web-orrian argitaratuko da.

Kontratazio-zerbitzuaren arduradunak kontratatu den produktu edo zerbitzua nola egiaztatuko den zehazten du eskatzailearekin batera:

- Zerbitzua ematean egindako jarraipenaren bidez.
- Jasotzerakoan, egiaztatzearen bidez.

### **4 Eskaera egiaztatzea**

Eskatzaileak eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatzen du. Egiaztatzea produktu edo zerbitzua jasotzeko unean egiten bada, horren emaitza eskaera ixteko unean dokumentatuko da. Egiaztatzea zerbitzua ematen den bitartean egiten bada, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den artean burutuko da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitatearen eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

### 4.2.3. C.1 kontratazio-eredua - Irekia

Eredu honi atxikita geratzen dira balio zenbatetsi hau duten kontratuak:

- 4.845.000,00 eurokoa edo kopuru horretatik gorakoa, obra-kontratuak badira.
- 193.000,00 eurokoa edo kopuru horretatik gorakoa, gainerako kontratu-motetan.

Ondoren, prozesuan zehar egin beharreko jarduerak deskribatzen dira:

#### 1 Kontratazeko beharra

Eskatzaileak kontratuaren beharrezana prestatuko du, eta arloko arduradunak edo dagokion arduradun nagusiak eman behar du horretarako baimena.

Beharrezanaren deskribapenaren arabera, kontratazio-zerbitzuko arduradunak aplikatuko den kontratazio-eredua hautatuko du (edo ezetsi, hala balegokio), eta zuzendaritza-batzordearen gain utzi ahal izango du onartzeke dauden beharrezanei buruzko erabakia.

Kontratazio-zerbitzuko arduraduna izango da eskaeraren arduraduna.

#### 2 Kontratazioa eta esleipena

Eskaera egiteko ardura duenak, honako hauek egin beharko ditu:

- Oinarri teknikoen agiria osatu, esleipenerako irizpideekin.
- Administrazio-klausulen agiri bat sartu.
- EBAOn eta [www.ejie.net](http://www.ejie.net) web-orrian, "kontratazaile-profila" atalean, argitaratu (BOEn eta EHAAn ere argitara daiteke), eskaintzak jasotzeko azken eguna baino:
  - 52 egun lehenago
  - 36 egun lehenago, EBAOn alde aurreko iragarkia argitaratzen bada edo presazko kasuan. 22 egun lehenago, behar bezala justifikatutako ez-ohiko kasuetan.
  - Epe horiek laburragoak izan ahal dira ondoko kasu hauetan:
    - 5 egun, agiriak kontsultatzeko sarbidea eskaintzen denean tresna elektronikoen bidez.
    - 7 egun gehiago, iragarkiak bide elektronikoko bidez prestatu eta bidaltzen direnean.
  - Epeak iragarkia EBAOran bidali den egunetik hasita kontatzen dira.
- EJIEko kontratazio mahaiak egiten du deialdia, eta mahai hori honako hauek osatuko dute: mahaiburuak (zuzendari nagusia), idazkari batek eta bi mahaikidek (bata sail teknikokoa eta bestea kontratazio-zerbitzuko). Hasiera batean izendatu diren arduradunek beste pertsona batzuk eskuordetu ditzakete kontratazio-mahaiaren bileretara joateko.

Ondoren, mahai horrek dituen zereginak deskribatzen dira:

- Kontratazio-zerbitzuaren arduradunak eta idazkariak gutun-azal administratiboak eta eskaintzen gutun-azal itxiak zabaldu eta dagozkion aktak egiten dituzte.
- Kontratazio-zerbitzuko arduradunak kontratazio-mahaiari kontratazio espedientea emango dio. Hona hemen espedientearen osagaiak: eskaintza, administrazio-klausulen agiria, oinarri teknikoaren agiria eta gutun-azal itxien irekieraren aktak.
- Gero, kontratazio-mahaiak eskatzaileari esleipen-proposamena egiteko eskatuko dio; horren barruan, egin diren eskaintzei buruzko balorazio teknikoaren egitea sartzen da, eta balorazio hori arloko arduradunak balioetsia egon beharko da.
- Azkenik, kontratazio-mahaiak esleipen-proposamena jaso eta baliozkotuko du; proposamen horrek eskaintzak balorazio handienekotik txikienera sailkatuko ditu, dagozkion agirian aurreikusitako irizpideen arabera, eta esleipen-proposamena errespetatuta.

Kontratazio-organoak eskatuko dio eskaintzarik merkeena aurkeztu duen lizitatzailari, hamar egun balioduneko epean, errekerimendua jasotzen duen egunaren biharamunetik kontatzen hasita, zergen eta Gizarte Segurantzaren inguruko betebeharrak betetzen dituela, kontratua burutzeko erabiliko dituen bitartekoak badituela eta, hala badagokio, eskatzen den behin betiko bermea eratu duela justifikatzeko dokumentazioa aurkezteko, edo kontratazio-organoari baimena emateko zuzenean eskura dezan. Errekerimendu hori adierazitako epean beteko ez balitz, lizitatzailak bere eskaintza bertan behera uzten duela ulertuko da, eta eskaintzen sailkapen-ordenaren arabera hurrengoaren lizitatzailari eskatuko zaio dokumentazio bera.

Kontratazio-organoak dokumentazioa jaso eta 5 egun balioduneko epean esleitu beharko du kontratua.

Esleipena hautagai edo lizitatzailari jakinaraziko zaie eta, aldi berean, kontratatzaile-profilean argitaratuko da. Hartzaileak jakinarazpena jaso duela ziurtatzen duen edozein bitartekoren bidez egingo da jakinarazpena.

Esleipena, proposamenak ireki eta BI HILABETEKO epean egin beharko da.

Ezarritako irizpide bakarra prezioa bada, esleipena proposamenak ireki eta 15 egun balioduneko epean egin beharko da.

Behin-behineko esleipena ez bada epe horietan egiten, lizitatzailak beren proposamenak erretiratu ahal izango dituzte. Ezingo da utzi esleitu gabe lizitazio bat, baldin eta agirian ageri diren irizpideen arabera onargarria den eskaintza edo proposamenen bat badago.

Esleipena kontratazio-organoak onartzeko du zenbatekoaren arabera.

- Zuzendari nagusiak mahaiaren proposamena balidatuko du ebazpen agiriaren bidez.

### 3 Eskararen kudeaketa

Zuzendari nagusiak eskaera edo kontratua onartzeko baimena emango du, izenpetzearen bidez.

Eskaera/kontratua formalizatu ahal izateko, lizitatzailari eta hautagaiei jakinarazpena igorri zitzaientetik hamabost egun igaro beharko dute eta esleipendunari errekerimendua egingo zaio kontratua errekerimendua jaso ondorengo bost egunetan formaliza dezan, kontratazio arloko errekurtsio berezia aurkezteko epea amaitu ondoren.

Kontratazio-zerbitzuaren arduradunak eskaera eta beharrezko informazioa esleipena lortu duen hornitzaileari bidaliko dizkio. Kontratua formalizatu dela EJIEren web-orrian argitaratuko da.

Kontratazio-zerbitzuaren arduradunak kontratatutako produktu edo zerbitzua nola egiaztatuko den zehazten du eskatzailearekin batera:

- Zerbitzua ematean egindako jarraipenaren bidez.
- Jasotzerakoan, egiaztatzearen bidez.

#### 4 Eskaera egiaztatzea

Eskatzaileak eskuratu den produktu edo zerbitzua eskatutakoarekin bat datorren egiaztatzen du. Egiaztatzea produktu edo zerbitzua jasotzeko unean egiten bada, horren emaitza eskaera ixteko unean dokumentatuko da. Egiaztatzea zerbitzua ematen den bitartean egiten bada, dena delako prozesuaren jarraipena egiten den artean burutuko da kontrola.

Kasu batean zein bestean, bat ez etortzeak gertatzen badira, kalitatearen eskuliburuan esaten den moduan jardun beharko da.

### 4.3 Beste prozedura batzuk

#### 4.3.1. C2- Ireki negoziatu publizitadeduna

Eredu honi atxikita geratzen dira balio zenbatetsi hau duten kontratuak:

- 4.845.000,00 eurokoa edo kopuru horretatik gorakoa, obra-kontratuak badira.
- 193.000,00 eurokoa edo kopuru horretatik gorakoa, gainerako kontratu-motetan.

Sektore Publikoko Kontratuen Legean ezarritako kasuetariko bat aplikatu behar da:

- Kasu orokorrak: 154. artikuluan
- Kontratu-mota bakoitzari dagozkion kasuak: Hornidura: 157. artikuluan.
- Kontratu-mota bakoitzari dagozkion kasuak: Zerbitzua: 158. artikuluan.

Kontratazio-eredu irekiaren aldean, eredu honetan hornitzaileekin negoziazio prozesu bat ireki daiteke eta argitaratzeko epe laburragoak daude.

A kontratazio-eredu irekirako ezarritako jarduera berberak aplikatzen dira, nahiz eta argitaratzeko epeak honako hauek diren:

- 37 egun lehenago, eta 7 egun murriztu daiteke iragarkiak bide elektronikoen bidez bidaltzen direnean.
- 15 egun lehenago, EBAOn alde aurreko iragarkia argitaratzen bada edo presazko kasuan. Edo 10 egun lehenago, bitarteko informatikoen bidez bidaltzen bada.
- Epeak iragarkia EBAOra bidali den egunetik hasita kontatzen dira.

#### 4.3.2. C3 - Murriztua

“C.3- Murriztua” kontratazio-eredua kontratu jakin hauetan izango da aplikatzekoa: hornitzaileei dena delako kaudimena exijitzen dieten kontratuen kasuan. Bi fasetan gauzatuko da:

- 1- Homologazioa: C 2 kontratazio-eredua (Irekia). Kontratazio ireki negoziatu publizitadeduna

2- Kontratazioa: B kontratazio-ereduaren (Mugatua) bidez. Homologatutako hornitzaileen artean (100.000 € edo gehiagokoa) edo A eredu sinplifikatuaren bidez (100.000 eurotik beherako kopurua); zenbatekoaren arabera, hortaz.

#### **4.3.3. Elkarrizketa lehiakorra**

Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 164. artikuluan adierazitako baldintzak betetzen direnean, elkarrizketa lehiakorraren prozedura aplikatzea erabaki daiteke, eta prozedura horretan Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 163. artikulutik 167. artikulura bitartean ezarritakoa beteko da.

#### 4.4 Kontratazio-ereduen laburpen-eskema

Irizpidea (Zenbatekoa, € BEZik gabe)	Kontratazio-eredua	Kontuan hartu beharrekoak
	<p>A- Sinplifikatua B-Mugatua C1 - Irekia C0.2- Negoziatu C3- Murriztua</p>	
50.000 € edo gutxiago	X	<p>Ez da beharrezkoa argitaratzea Ohiko hornitzaileari eskaintza eskatu, edo besteren bati ohiko hornitzaileerik ez balego. Eskaintza bat baino gehiago eskatzea aukerakoa da. Hala eginez gero, aplikatuko diren esleipeneko irizpideen berri eman beharko zaie hornitzaileei.</p>
50.001 eta 100.000 artean	X	<p>Hornitzaile izan daitezkeenek egindako eskaera web-orrian jarri behar da, "kontratatzaile-profila" atalean, 5 egun lehenago.  Horren ondoren, 3 hornitzailegai aukeratuko dira, gutxienez, eta negoziazio-prozesurako eskaintzak egiteko eskatuko zaie. 10 egun izango dituzte eskaintzak aurkezteko.</p>
100.000, 01 eta 192.999, 99 artean	X	<p>Webean, "kontratatzaile-profila" atalean 15 eguneko aurrerapenez jarri behar da (premiazko kontratazioa bada, epea laburtzeko aukera izango da, erdira gehienez)</p>
193.000, 00 edo gehiago	<p>X X X</p>	<p>EBAO aldizkarian eta EJI Eren web-orrian, "kontratatzaile-profila" atalean (BOE eta EHAO, aukeran)  C2 eredia (Negoziatu publizitadeduna) aplikatzekoa izango da, baldin eta SPKLk biltzen duen kasuren bat gertatzen bada (154., 157. eta 158. artikulua). C3 eredia (Murriztua) kontratu jakin hauetan izango da aplikatzekoa: hornitzaileei dena delako</p>

kaudimena exijitzen dien kontratuen kasuan. Bi fasetan egingo da:

1- Homologazioa: C 2 kontratazio-eredua (Irekia). Kontratazio ireki negoziatu publizitadeduna

2- Kontratazioa: B kontratazio-ereduaren (Mugatua) bidez. Homologatutako hornitzaileen artean (100.000 eurotik gorako kopurua) edo A eredu sinplifikatuaren bidez (100.000 eurotik beherako kopurua); zenbatekoaren arabera, hortaz.



## I. eranskina – Glosario



<b>Baldintza teknikoan agiria (BTP)</b>	Kontratatu nahi den produktuaren edo zerbitzuaren bereizgarri teknikoak zehazten dituen dokumentua da. Hornitzailegaiek kontuan hartu behar dute, ezinbestean, eskaintzak aurkezteko. Horrez gain, kontratua esleitzeko zein irizpide aplikatuko diren ere zehazten du. Dokumentua SCR6150 formatuan oinarritzen da, eta argitaratu ere egingo da, erabiliko den kontratazio-ereduak publikitate baldin badakar.
<b>Zehaztasun teknikoan dokumentua</b>	Kontratatu nahi den produktuaren edo zerbitzuaren bereizgarri teknikoak zehazten dituen dokumentua da, eta ezinbestean kontuan hartzekoa. "A-Sinplifikatua" ereduaren erabil daiteke, zenbatekoa 50.000 euro edo gutxiago bada. Kontratatu nahi den produktuaren edo zerbitzuaren bereizgarri teknikoan berri azaldu behar du soil-soil, bai eta esleipen-irizpideak zehaztu ere. Ez dago formaturik aurrez finkatuta.
<b>Esleipen-proposamena</b>	Kontratazio jakin bat nori esleitu zehazten duen dokumentua da; hautatutako eskaintza eta hornitzailea zehazten ditu. Aurkeztutako eskaintzei egin zaien balorazio teknikoaren txostena ere badakar, oinarri teknikoan baldintza-agirian deskribatutako irizpide objektiboetan oinarrituta egindakoa. Halaber, kontratazio-eredu jakin bat zergatik aplikatu den justifikatzen du. Kasu berezirik izan bada, esaterako, hornitzaile eskusiboa erabiltzeko erabakia hartzea, horren justifikazioa ere jasoko du.
<b>Klausula administratiboan baldintza-agiria</b>	Administrazio-prozedura bera nahiz kontratazioa zer-nola gauzatu den deskribatzen duen dokumentua da. Eskaintzarekin batera hornitzaileak zer informazio eta dokumentazio administratibo aurkeztu behar duen ere zehazten du. Erabiliko den kontratazio-ereduak publikitatea behar badu, argitaratu egingo da agiria. Derrigorrezkoa da 50.000,00 € baino gehiagoko kontratazioetan.
<b>BOE</b>	Estatuko Aldizkari Ofiziala
<b>EHAA</b>	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
<b>EBAO</b>	Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala
<b>SPKL</b>	Sektore Publikoko Kontratuen Legea (urriaren 30eko 30/2007 Legea)
<b>A kontratazio-eredua. Sinplifikatua</b>	Kontratazio-eredu honek aukera ematen du bi modutan jokatzeko: batetik, hornitzaile bakarria kontratatzea, lehiarik gabe eta publikitaterik gabe, 50.000 euro edo gutxiagoko kontratazioa edo txikiagoa bada; bestetik, publikitate eta gutxiago kontratazioa egitea, gutxienez, 3 hornitzaileentzat, 50.001 eta 100.000 euro arteko kontratuen kasuan.
<b>B kontratazio-eredua. Mugatua</b>	Deialdia EJIEn web-orriko "kontratatazile-profila" atalean argitaratu ondoren, aurkeztu diren eskaintzetatik bati kontratua esleitzeko aukera ematen duen kontratazio-eredua (100.000,01 euro eta 192.999,99 euro arteko kontratazioen kasurako)
<b>C.1 kontratazio-eredua. Irekia.</b>	SPKLko prozedura irekian oinarritutako eredua (141. orria). 193.000,00 euro edo gehiagoko kontratazioetan aplikatzekoa.
<b>C.2 kontratazio-eredua. Ireki negoziatu publikitadeduna.</b>	EBAO/BOE/EHAA edo, aukeran, EJIEn web-orriko "kontratatazile-profila" atalean argitaratu ondoren, aurkeztu diren eskaintzetatik bati kontratua esleitzeko aukera ematen duen kontratazio-eredua. Kontratazio-eredu irekiaren aldean, hauek dira ezberdintasunak: eskaintzak aurkeztu dituzten hornitzaileekin negoziazio-prozesuari ekiteko aukera ematen du, eta argitalpen-epe laburragoak ditu (193.000,00 euro edo gehiagoko kontratazioen kasuan aplikatzekoa da, kasu berezietakoren bat betetzen bada)
<b>C.3 kontratazio-eredua. Murriztua.</b>	SPKLren prozedura murriztuan oinarritutako eredua (146. artikulua). Aldez aurretik hornitzaileei kaudimen jakina eskatzen dieten kontratuei aplikatzekoa (193.000,00 euro edo gehiagoko kontratazioei aplikatzekoa).
<b>Kontratazio-mahaienei.</b>	Kontratazio-mahaia da esleipeneko proposamena egiteko ardura daukan organoa, honako eredu hauek baliatuz egiten diren kontratazioetan: C.1-Ireki, C.2.2-Kontratazio-eredu ireki negoziatu publikitadeduna, C.3-Murriztua kontratazio-ereduaren homologazio-fasea
<b>ERP</b>	Enterprise Resource Planning. Kontratazioa egiteko eta bestelako prozesuen kudeaketarako erabiltzen den aplikazio informatikoa